

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila****Bizkaiko Foru Aldundiaren 62/2025 FORU DEKRETUA, ekainaren 12koa, zeinaren bidez arautzen baita Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokia.**

Emakumeen aurkako indarkeria matxista giza eskubideen urraketa larria da, emakumeek gizartean bizi duten egiturazko desberdinkeria-egoeraren ondoriozkoa.

Egiturazko arazo larria eta multidimensional da, eta lehentasunezko helburua da gizarte zein erakunde mailan. Fenomeno horri aurre egiteko garatzen diren politikak eta jarduketak hauetan oinarrituta egon behar dira: ikerketaren bidez arazoa sakonago sakontzea; indarkeria matxistaren biktimei arreta ematea errazten duten neurriak hartzea; sentsibilizazioaren, prebentzioaren eta erreparazioaren arloetan lan egitea.

Mugimendu feministari eta berdintasun-politika publikoen garapenari esker, indarkeria matxista agenda politikoan lehentasunezko arazoa izatea lortu da. Ildo beretik, indarkeria matxista desagerrarazteko politiken eskumenen esparruan, legegintzako aurrerapen handiak egin dira, administrazio publikoentzako lehentasuneko lan-ildoak zehazteko.

Gaur egun, arau eta eskumen esparru zabala dago indarkeria matxistarik gabeko bizitzak bermatzeko.

I

Nazioarte, estatu eta autonomia-erkidego mailako araudi ugariak botere publikoen esku-hartzea eskatzen du. Besteak beste, honako hauek aipatu behar dira: Emakumeen aurkako diskriminazio-modu guztiak ezabatzeak Konbentzioa (CEDAW, 1979); Europako Kontseiluaren hitzarmena emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren kontrako prebentzioaz eta borrokaz (2011, Istanbulen hitzarmena); 2004ko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa; 4/2015 Legea, apirilaren 27koa, Delituaren Biktimaren Estatutuarena; 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatu zuena; Genero-indarkeriaren aurkako Estatu Itunak (2017) sortutako araudia; 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzkoa; 10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, Sexu Asktasunaren Berme Integralari buruzkoa; Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzaren Legearen testu batgina, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak onartua (aurrerantzean, Berdintasunerako Legearen testu bategina).

Autonomia Erkidegoan, Berdintasunerako Legearen testu bateginak, berdintasunaren arloko erregulazio berriaz gain, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen bigarren aldaketan ezarritakoa jasotzen du, eta horrela, emakumeen aurkako indarkeria emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren arazo sistemiko eta unibertsalaren barruan kokatzeari buruzko ikuspegi partekatua bermatzen du. Hain zuzen ere, «emakumeen aurkako indarkeria matxista» terminoa jasotzen du, emakumeen aurkako indarkeriaren funtsezko arrazoia matxismoa dela agerian geratzeko. Ildo horretan, bere printzipio orokorretan berariaz aipatzen du emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitu eta desagerraraztea, eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloko jarduketan baliabide ekonomiko, giza baliabide eta baliabide tekniko gehiago ezartzea ere, eta ez soilik prebentzio-lanetan, baita biktimen arreta integralerako, oneratzeko eta erreparazioarako irizpideak zehaztean ere.

Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoan (aurrerantzean, EAE) beste aurrerapauso garrantzitsu batzuk eman dira indarkeria matxistaren aurka esku hartzeko esparruan. 2022an, EAEko Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta koordina-



tzeko erakundeen arteko III. Akordioa sinatu zen. Akordio horren helburua da EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta integrala ematen diharduten erakundeen artean ahalik eta koordinazio eta lankidetzat handiena eta onena lortzea, biktimei zuzendutako arreta hobetzeko eta laguntzeko indarkeria matxistarik gabeko bizitza gogobetegarria lor dezaten.

Beraz, «emakumeen aurkako indarkeria matxista» terminoa adosten da. Indarkeriaren kontzeptualizazio horrek jarduera-esparrua zabalagoa dela esan nahi du, emakumeen aurkako beste indarkeria mota batzuk hartzen baititu kontuan, honako hauek gain: bikotekideak edo bikotekide ohiak emakumeen aurka egindako indarkeria, familia barruan beste senide batek egindakoa, eta, eremu horretatik kanpoko sexu-indarkeria.

II

Indarkeria matxistaren kontzeptualizazio-aldaketatik abiatuta, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauak ere jasotzen du emakumeen aurkako indarkeriaren kontzeptua indarkeria matxistaren kontzeptura aldatzea. Izan ere, horretan oinarrituta, indarkeriaren konplexutasunean aurrera egiten da eta ikuspegi zabalagoa daukagu; gainera, aukera daukagu indarkeriaren beste eremu batzuk eta indarkeria hori jasaten duten emakumeen eta nesken aniztasuna identifikatzeko, indarkeria matxista jasaten duten emakumeen seme-alabak ere indarkeria mota horren subjektu direla aitortzeko, kolektibo zaurgarriagoak edo lehentasunezkoak identifikatzeko, eta, azkenik, indarkeriaren adierazpenak eta intentsitateak eta indarkeriaren eragina ezagutzeko, kontuan hartuta askotariko diskriminazioak daudela elkarlotuta.

Gainera, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauak 56. artikuluan jasotzen duen bezala, Bizkaiko Foru Aldundiak, bere eskumenen esparruan, politika publikoek indarkeria matxistaren arloan gainditu gabe dituzten erroren buruzko hausnarketa eta azterketa egingo du, eta gai horri buruzko ezagutzak zabalduko ditu, kontzeptualizazioa aberasteko eta, horretan oinarrituta, politika horiek diseinatzeko eta ezartzeko oinarritzat hartzen diren politikak eta antolaketa-eredua ebaluatu eta birdefinitzeko.

Hori Berdintasunerako Legearen testu bateginean zehazten da. Lege horren 54.3 artikuluan, indarkeria matxistaren definizioa jasotzen da, edozein eremu publiko edo pribatutan gertatzen dela ere, honako esparru hauek ere barne: familia, lana, hezkuntza, osasuna, kirola eta komunitatea, komunikabideak, aisialdi- eta jai-espazioak eta ingurune birtuala.

Arazo hori sakon aztertzeko, beharrezkoa da Bizkaian Indarkeria Matxistaren Behatoki bat finkatzea; bertan, indarkeria matxistaren aurkako borrokaren esparruan beharrezkoa den truke eta lankidetzat teknika bideratuko da, arazo horren errealitatea dimentsio guztietan ezagutzeko informazio eta datuak zentralizatuko dira, eta analisia kontzeptu-esparru berrira egokituko da. Hasiera batean, Behatokia Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia izenarekin sortu eta arautu zen; hala ere, aipatutako kontzeptu-aldaketak eta arlo horretako arau-esparru berriak ezinbesteko egiten dute kide anitzeko organoa egungo errealitatera egokitzea.

Beraz, kontuan hartuta Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokia lehendik zegoela, zeina Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia sortzeko martxoaren 18ko 53/2003 Foru Dekretuak arautu baitzuen (ondoren, azaroaren 9ko 188/2004 Foru Dekretuak, otsailaren 2ko 5/2010 Foru Dekretuak, maiatzaren 21eko 75/2013 Foru Dekretuak eta martxoaren 1eko 35/2016 Foru Dekretuak aldatu zuten), beharrezkoa da haren kontzeptualizazioa, egitura eta antolamendua egokitzea azken urteetan berdintasunaren arloan garatu den arau-esparru berrira.

III

Nazioarteko, estatuko, autonomia-erkidegoko eta foru-mailako araudiak ezarritakoaren arabera, beharrezkoa da datuak biltzeko eta sistematizatzeko sistema bat sortzea, ikuspegi intersektzionala integratzen duten eta gure gizartean indarkeria matxistaren errealitatea hobeto ezagutarazten diguten adierazleekin. Ezagutza horri esker, indarke-



riaren arloko politika publikoen diseinua, jarraipena eta ebaluazioa hobetu eta egokitu ahal izango ditugu; Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokiaren kudeaketa funtsezko tresna da helburu horiek lortzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoan, berdintasunerako politiken arloko eskumenak Berdintasunerako Legearen testu bateginean daude jasota. Lege horren 54.6 artikulua araber, Emakumeen kontrako indarkeria matxista prebenitu, hari kontra egin, erreparatu eta ezabatzeko xedea duten politikak berdintasun-politiken esparruan kokatu behar dira, eta EAEko administrazio publikoetan emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko eskumena duten organoek, bakoitzak bere eskumen-eremuan, lidergoaz eta koordinazio orokorrak arduratu behar dute, ezertan eragotzi gabe zerikusia duten sistema eta politika sektorialetako organo arduradunei dagozkien lidergo eta koordinazio espezifikokoak.

Halaber, 55. artikulua araber, EAEko administrazio publikoek ikerketa sustatu behar dute, honako hauen gainean: indarkeriaren kausak, ezaugarriak, arazoa identifikatzeko zailtasunak eta ondorioak, eta osasunean eta bizitzaren eremu guztietan eskubideak baliatzerakoan duen inpaktua, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren motak, eta batez ere neska txikien kontra baliatzen den indarkeriarenak, eta indarkeria horiek ezabatzeko eta horien ondorioak erreparatzeko aplikatzen diren neurrien eraginkortasuna eta egokitasuna. Artikulu beraren ildotik, Autonomia Erkidegoko Administrazioak biztanleria osoaren prospekzio-inkestak egin edo babestu behar ditu, bai eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren adierazpenei buruzko azterlanak ere, haren garrantzia eta prebalentzia ezagutzeko, diskriminazio anizkoitza eragiten duten faktoreak kontuan hartuta eta ikuspegi intersektionala txertatuta.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren IV. kapituluak ezartzen du emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako borrokaren arloko Bizkaiko sektore publikoaren jardun-esparrua, eta ikerketa, prebentzio, sentsibilizazio eta prestakuntzari buruzko neurriak barne hartzen ditu. Lan horretan, helburua da jardun-ildoekin bat datozen foru-politika publikoak diseinatzea. Jarduera-esparru horren barruan, Foru Arauak Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokia arautzen du bere 55.2 artikuluan, eta kide anitzeko aholku-organismo bat dela ezartzen du, indarkeria matxistaren arloan eskumena duen sailari atxikita. Eginkizun nagusi hauek ditu: 1) Bizkaiko Lurralde Historikoan gertatzen diren indarkeria matxistako egoerak eta ondorioz abiarazten diren erakunde-politiken emaitzak zaindu eta haien jarraipena egiteko ahalmena duen informazio-sistema bat eraikitzea, eskura dauden baliabideak benetako beharrianetara egokitzeko. 2) Gomendioak eta proposamenak egitea Bizkaian indarkeria matxistaren eremuan eragina duten zerbitzu eta prestazioen eskaintza hobetzeko.

IV

Euskal Autonomia Erkidego Osorako Erakundeek eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeek arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7. artikulua ezartzen du lurralde historikoei dagokiela, nori bere lurraldearen barruan, gizarte-laguntzaren eta emakumeen arloan legeria betearaztea. Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideek ere zuzenean jardun dezakete arlo horretan.

Adierazi behar da zer xedatzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 6ko 60/2024 Foru Dekretuak (Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren Egitura Organikoaren Erregelamendua onesten duena) bere 1. artikuluan, hau da, sail horrek Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak kudeatzeko eskumenak baliatuko dituela, indarkeria matxistan arreta berezia jarrita, bai eta gizarte-zerbitzuen arloko eskumenak ere.

Foru Dekretu hau bat dator erregulazio onaren printzipioekin. Printzipio horiek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezartzen dira, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2021eko ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan biltzen dira (Dekretu horren bidez Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).



Dekretu hau egiterakoan, kontuan hartu da zer xedatzen duen 2019ko maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuak, Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduera-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituenak.

Foru Dekretu hau idaztean, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren 112/2024 Foru Dekretuan xedatutakoa, azaroaren 14koa, zeinaren bidez arautzen baita Bizkaiko Foru Aldundian generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioa.

Ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 9 b) eta 14.1 artikuluen arabera, Foru Dekretu hau salbuetsita dago aurretiko kontsulta publikoaren eta entzunaldi eta informazio publikoaren izapideak egitetik, xedapen honen edukiak goragoko arau juridikoen egokitzapena delako. Zehazki, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua egokitzea da helburua, eta hala jaso da 2025eko Arau-Planan.

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatuaren martxoaren 24ko 01753/2025 Foru Aginduaren bidez, Foru Dekretu hau egiteko prozedura hastea erabaki da, ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 12 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 16 eta 17 artikuluetan xedatutakoaren arabera, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren txosten juridikoa eta kontrol ekonomikoko txostena egin dira.

Ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 20. Artikuluan xedatutakoaren arabera, legezkotasunari buruzko txostena egin da.

Hori guztia dela bide, eta Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17, 39.k) eta 64.3. artikuluek emandako eskumenak erabiliz, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru diputatuak proposatu eta Bizkaiko Foru Aldundiak aztertu ondoren,

XEDATZEN DA:

1. artikulua. — Xedea

Foru Dekretu honen xedea Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokia arautzea da. Behatokia aholkularitzarako kide anitzeko organoa da, eta informazio-sistema bat eraikitzea du helburu, Bizkaiko Lurralde Historikoan indarkeria matxistaren egoeren kontrola eta jarraipena egiteko, berdintasunetik abiatuta, eta indarkeria matxistaren eremuan erakundeek abiarazi dituzten politikek biktimengan duten eragina aztertzeke eta jarraipena egiteko. Era berean, indarkeria matxistak sortutako egoerak prebenitzeko, artatzeko eta konpontzeko dauden baliabideak egokitzea.

2. artikulua. — Helburuak

Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokiak helburu hauek ditu:

- a) Berdintasunaren eremuan oinarrituta, Bizkaian gertatzen diren indarkeria matxistaren egoeren errealitatea eta bilakaera ezagutzea, egoera horiek gainditzeko proposamenak diseinatzeko.
- b) Informazio-sistema bat eraikitzea, Bizkaiko Lurralde Historikoan gertatzen diren indarkeria matxistaren egoeren kontrola eta jarraipena egiteko, eta erakundeek abiarazi dituzten politiken ondorioak aztertzeke eta haien jarraipena egiteko, eskura dauden baliabideak benetako beharrianetara egokitu ditzaten.
- c) Gomendioak eta proposamenak egitea Bizkaian indarkeria matxistaren arloan esku-hartzeak hobetzeko.

3. artikulua. — Eginkizunak

Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokiaren eginkizunak hauek izango dira:

- a) Aplikazio informatiko bat diseinatzeko, martxan jartzea eta mantentzea, non jasotzen baitira Bizkaian jarduten duen arreta-sistemak indarkeria matxistaren egoerei buruz bildutako datuak.



- b) Prebentzio-, arreta- eta erreparazio-sistemaren egituraren maila guztietan eskuragarri dagoen informazioa biltzeko eta aztertzeko organo iraunkor gisa jardutea.
- c) Indarkeria matxistaren arloko zerbitzuek erabiltzen dituzten adierazleak eta informazio-sistemak hobetzeko gomendioak eta proposamenak egitea.
- d) Antzeko beste erakunde batzuekin parte hartzea eta haiekin harremanetan egotea. Beste administrazio batzuetan hasitako eta planteatutako esperientziak eta erreformak ezagutzea.
- e) Indarkeria matxistaren egoeren zabaltasunari eta bilakaerari buruzko diagnostiko eta ebaluazioaren azterlan eta txosten teknikoak egitea proposatzea.
- f) Esku hartzeko sistemek indarkeria matxistaren biktimentzat garatzen dituzten neurrien egokitasuna aztertzea, haien ondorioak eta eraginak ikertzea eta jardunbide egokien adibideak aztertzea.
- g) Bizkaian indarkeria matxistaren arloan esku-hartzeak hobetzeko gomendioak eta proposamenak egitea eta dagozkien erakundeei helaraztea.
- h) Trukerako eta komunikaziorako foro bat eratzea, indarkeria matxistaren arloko ikerketa-taldeen azterketak eta analisi-lanak errazteko.
- i) Antolakuntza- eta funtzionamendu-araudia egitea.

4. artikulua. — Osaera

1. Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokiak osoko bilkuran jardungo du, eta honako kide hauek izango ditu:

- a) Presidentea: Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko sail eskudunaren foru diputatua.
- b) Presidenteordea: Berdintasuna Sustatzeko Zuzendari Nagusia.
- c) Kideak (ordezkatutako unitate, sail eta/edo erakunde bakoitzaren titularra eta ordezkoa):
 - 1. Bederatzi (9) pertsona, gehienez, Bizkaiko Foru Aldundiko arloen ordezkari gisa, Behatokiaren xedearekin zerikusia duten eskumenen arabera Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak erabakitzen dituenak.
 - 2. Bederatzi (9) pertsona, gehienez, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak Behatokiaren xedearekin zerikusia duten eskumenen arabera gonbidatzen dituen Eusko Jaurlaritzako sailen ordezkari.
 - 3. Hiru (3) pertsona udal eta mankomunitateak ordezkatzeko; EUDELeke proposatuta.
 - 4. Hiru (3) pertsona indarkeria matxistaren arloan lan egiten duten elkarte eta erakundeak ordezkatzeko. Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak elkarte eta erakunde horietako bi aukeratuko ditu, indarkeria matxistaren arloarekin lotura dutenetatik, eta besteak Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseiluaren ordezkari gisa hartuko du parte.
 - 5. Hala badagokio, Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak beste hiru (3) pertsona gehienez izendatu ahal ditu.
- d) Idazkaria: Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiaren goi-mailako teknikari bat.

2. Behatokiaren osoko bilkura 1. atalean adierazitako ordezkarietarako osatuko dute, eta berdintasunaren arloan eskumena duen foru diputatuaren For-aginduz osatuko da.

**5. artikulua. — Funtzionamendua eta araubide juridikoa**

Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokiaren funtzionamendurako irizpideak hauek dira:

- a) Behatokia urtean behin(1) bilduko da ohiko osoko bilkuran; osoko bilkura berezian, berriz, presidenteak —bere ekimenez edo, gutxienez ere, Behatokiko kide guztien heren batek eskaturik— deitutako beste aldiz.
- c) Presidentearen eskumena izango da Behatokiaren bileretarako deia egitea —gutxienez ere, bilera-eguna baino hamabost egun lehenago egin behar du deia— eta gai-zerrenda zehaztea. Baliteke deia egiteko epea laburragoa izatea, presazko kasuetan.
- e) Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokiak hirugarren artikuluan aurreikusten diren funtzioak betetzeko behar adina batzorde edo lan talde eratzea erabaki dezake. Behatokiko osoko bilkurako kideen gehiengoak onartu behar ditu batzorde edo lan-talde horiek, eta aztertu beharreko arlo zehatzaren arabera eratuko dira. Horretarako, komenigarritzat joz gero eta jorratu behar dituzten gaien arabera, adituen laguntza izan ahal izango dute dagozkion txosten teknikoak egin ahal izateko.
- g) Aurreko paragrafoetan ezarritakoa gorabehera, Behatokiak funtzionamendurako bere arauak sortu ahal izango ditu, dagokion Foru Aginduaren bidez. Edonola ere, oro har aplikatzekoa den araudian eta Foru Dekretu honetan xedatutakoa bete beharko da beti.

6. artikulua. — Atxikipena eta kudeaketa administratiboa

Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokia Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiari atxikita egongo da, eta horri dagokio Behatokiari behar duen laguntza teknikoa eta administratiboa ematea.

XEDAPEN GEHIGARRIA**Xedapen Gehigarri Bakarra. — Ordezkariek izendatzea**

Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokian ordezkatuta dauden erakunde guztiek Bizkaiko Foru Aldundian emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumena duen saileko foru diputatuari jakinarazi beharko diote zer pertsona aukeratu dituzten ordezkariek eta ordezko izateko, eta noren izendapena ezeztatu duten eta zer izendapen berri egin duten.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA**Xedapen Indargabetzaile Bakarra. — Indargabetutako arau-xedapenak**

Indargabeturik geratzen da 2003ko martxoaren 18ko 53/2003 Foru Dekretua, zeinaren bidez sortu baitzen Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia. Dekretu hori 2004ko azaroaren 9ko 188/2004 Foru Dekretuak, 2010eko otsailaren 2ko 5/2010 Foru Dekretuak, 2013ko maiatzaren 21eko 75/2013 Foru Dekretuak eta 2016ko martxoaren 1eko 35/2016 Foru Dekretuak aldatu dute. Halaber, indargabeturik geratzen da arau honetan xedaturikoa urratzen duen xedapen oro.

AMAIERAKO XEDAPENAK**Azken Xedapenetako Lehenengoa. — Ordezko araubidea**

Dekretu honetan aurreikusi ez den guztirako, aplikatzekoa izango da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoa, bereziki prozedura-gaiei eta kide anitzeko organoei dagokienez, bai eta arau horiekin bat datozen eta aplikatzekoak diren gainerako indarreko lege-xedapen guztiak ere.

**Azken Xedapenetako Bigarrena. — *Arau-garapena***

Ahalmena ematen zaio emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumenak dituen foru diputatuari Foru Dekretu honetan xedatutakoa garatu, betearazi eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken Xedapenetako Hirugarrena. — *Indarrean jartzea*

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean Foru Dekretu hau.

Bilbon, 2025eko ekainaren 12an.

Enplegua, Gizarte Kohesioa
eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatua,
TERESA LAESPADA MARTÍNEZ

Ahaldun Nagusia,
ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA